

Ebazpena: R07/2023

Espedientea: 1/2013 eta metatuak: 19/2013 eta 40/2017

Vitoria-Gasteizen, 2023ko otsailaren 17an.

Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Itunaren Arbitraje Batzordea honakoek osatzen dute: Violeta Ruiz Almendral presidenteak, eta Sofía Arana Landín eta Javier Muguruza Arrese bokalek. Eta honakoa erabaki dute:

ERABAKIA

Gipuzkoako Foru Aldundiak (aurrerantzean, GFA) Zerga Administrazioako Estatu Agentziaren (aurrerantzean, ZAEA) aurka aurkeztutako gatazkari buruzkoa, zeinaren helburua baita CAFSA zergapekoaren gaineko kudeaketa-eskumena zehaztea, 2012/4, 2012/5, 2012/10, 2012/11 eta 2016/12 aldietako BEZari dagokionez. Aldi horiek Arbitraje Batzorde honetan izapidetzen ari dira, 1/2013, 19/2013 eta 40/2017 espediente-zenbakiekin.

I. AURREKARIAK

1.- CAFSAk Gipuzkoan du egoitza fiskala, eragiketa-bolumenaren arabera zergak ordaintzen ditu eta GFARI dagokio ikuskatzeko eskumena, aipatutako gatazken kontzeptuari eta eragindako aldiei dagokienez.

2.- 1/2013 gatazka.

ZAEAk, datuak egiaztatzeko prozedura baten barruan, 2012ko irailaren 3an errekerimendu bana egin zuen 2012ko ekitaldiko 4. aldiko (apirila) eta 5. aldiko

(maiatza) 353, 340 eta 322 erduetarako, erdu horietan jasotako BEZaren kuotetan antzemandako desadostasunak zuzentzeko eskatuz.

CAFSAk erantzun zuen 2012/4 aldiko desadostasuna transkripzio-akats baten ondorio zela, eta 2012/5 aldikoa justifikatu egin zuen.

ZAEAk behin-behineko likidazioak eman zituen zergapekoaren alegazioen arabera, eta zegozkion itzulketak egin zituen.

2012ko azaroaren 2an, GFAk inhibizio-errekerimendua egin zuen, eta, ZAEAk bere eskumena isilbidez berretsi zuenez, 1/2013 gatazka planteatu zuen.

3.- 19/2013 gatazka.

ZAEAk, datuak egiaztatzeko prozedura baten barruan, 2013ko apirilaren 15ean errekerimendu bana egin zuen 2012ko ekitaldiko 10. aldiko (urria) 340 eta 322 erduetarako, horietan jasotako BEZaren kuotetan antzemandako desadostasunak zuzentzeko eskatuz, eta 2012ko ekitaldiko 11. aldiko (azaroa) eragiketa batean % 18ko tasa aplikatzean (% 21era aldatuta egon arren) antzemandako desadostasunak zuzentzeko eskatuz.

CAFSAk desadostasunak justifikatuz erantzun zuen, eta ZAEAk eskatutako itzulketak egin zituen.

2013ko ekainaren 18an, GFAk inhibizio-errekerimendua egin zuen, eta, ZAEAk bere eskumena isilbidez berretsi zuenez, 19/2013 gatazka planteatu zuen.

4.- 40/2017 gatazka.

ZAEAk, datuak egiaztatzeko prozedura baten barruan, 2017ko ekainaren 14an errekerimendu bat egin zuen 2016ko ekitaldiko 12. aldiko 340 eta 322 ereduatarako, horietan jasotako BEZaren kuotetan antzemandako desadostasunak zuzentzeko eskatuz.

CAFSAk desadostasunak justifikatuz erantzun zuen, eta ZAEAk eskatutako itzulketak egin zituen.

2017ko irailaren 11n, GFAk inhibizio-errekerimendua egin zuen, eta, ZAEAk bere eskumena isilbidez berretsi zuenez, 40/2017 gatazka planteatu zuen.

5.- Gatazkek metatu egin ziren 2021eko azaroaren 26ko akordio bidez, eta prozedura arruntaren bidez izapidetu dira.

II. ZUZENBIDEKO OINARRIAK

1.- Arbitraje Batzordearen eskumena

Arbitraje Batzordeak du eskumena, Ekonomia Itunaren 66.Bat.b) artikuluan adierazitakoaren arabera, Arbitraje Batzordearen eginkizunak ezartzen baititu:

b) Banako zerga-harremanetako arazo zehatzetan ekonomia-itun hau interpretatzeko eta aplikatzeko orduan administrazio interesdunen artean sor litezkeen gatazkek erabakitzea.

2.- Prozedurak metatzea

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 57. artikulua aplikatzekoa da 1760/2007 Errege Dekretuaren bidez onartu zen Ekonomia Itunaren Arbitraje Batzordearen Araudiaren 8. artikuluan xedatutakoari jarraikiz, eta hauxe dio:

Prozedura hasten edo izapidetzen duen administrazio-organoak, prozedura hasteko modua edozein dela ere, erabaki dezake, ofizioz edo alderdi batek eskaturik, prozedura hori metatzea oinarri bera edo lotura estua duten beste batzuekin, organo berak izapidetu eta ebatzi behar badu prozedura.

Metatzeko erabakiaren aurka ezin da errekurtsorik aurkeztu.

3.- Kudeaketa- eta ikuskapen-eskumenak zer-nola dauden banatuta Ekonomia Itunean

Arbitraje Batzordeak dagoeneko eman du iritzia, esaterako, 19/2022 Ebazpenean, hizpide diren hiru gatazken oinarrian dagoen auziaz. Ebazpen horren edukira igortzen du erabat, dagozkion ondorioetarako.

4.- Prozeduraren xedea gerora galtzeagatik atzera egitea.

GFAk, amaierako alegazioen idazkian, atzera egin du prozeduraren xedea gerora galdu izanaren ondorioz; izan ere, egiaztatu du ez dagoela desadostasunik ZAEAk eta GFAk berak egindako likidazioen artean, CAFSAk emandako azalpenen ondorioz.

Administrazio Publikoen Administrazio-prozeduraren 39/2015 Legearen 93 artikulua, prozedura amaitzeko kausen artean aipatzen du atzera egitea.

Horiek horrela, Arbitraje Batzordeak hauxe

ERABAKITZEN DU

1.- Gatazkak artxibatzea, prozeduraren xedea gerora galtzearen ondorioz GFAk atzera egin duelako.

2.- Erabaki hau Zerga Administrazioko Estatuko Agentziari, Gipuzkoako Foru Aldundiari eta CAFSAri jakinaraztea.